ORRILLA
22
Eguaztena
Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 6,00 Irko, lau lle)
Bilbao'atazkua 7,50 » »
Idazki-itunmena 62,00 » urtez
Atzarrijetakuak 100,00 » »
Beldayen itunduba

XXIII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.990 zenbakija

Egunekua

Jokua dala-ta

Izparingijetan izparkarijak idazten dabena agertuten da.

Eta idazten dana, batak ezpa-da, beste batek irakurri-egiten dau. Guk, be, neizian bein, irakurten dogu.

Lehuok idazteko gaya emon daustien izparok, Donostia'ko izparingi baten irakurri dodaz. Eta donostiar izparingi onek, bariz, berak diñuanez, France'ko izparingi batetik artu dauz.

Añumendiz aruzkuak dirala naiz onanzkuak ixan, Euzkadi'ko uri txukun eta ospatsu biren ixena atatuten dabenak dira. Izpar onein zijo gustija, ba, Donostia ta Biaritz dira.

Bere asikerako lehuetan diñuana, gaztelaraz ba-diñosku be, guk olantxe ulertuten dautsagu: "Biaritz'ko egurasti, egonaro, giro edo gaztelarak "clima"-ixenaz ulertuten daben ori, Donostia'kuaren antzekua da. Alan eta gusti be, baña, Biaritz'era, Donostia'ra baño arotz-notin geyago elduten dira. Azkenengo igazi diran Pasko-jayetan, esaterako, Donostia'ra eldu zirian arotzak, gitxi-gitxi ixan ziran. Biaritz'era ostera,gurañe".

"Biaritz'en, "Casino" esaten dautsien joko-etxia dago, ba—darai francetar izparkarijak—, gurañe txindi ta abar jokatutia azke ixaten dan joko-etxe ospatsuba. Joko-etxe au, aberatsen jolasgari dan-ezkero, aberatsak Biaritz'eratuteko berebixikua da."

"Joko-etxe onek—darai izparkarijak—urte onen asikeratik azkenengo jorala'ren azkenerarte, garbijan irabazi ixan dauna, 1.200.000 franco dira."

Eta irabazte ori edef eretxita-edo, olantxe amatuten dau: "Crizija, lanik-eza, txindirik-eza ta abar dagozala esango dauskube, gero".

— ✠ ✠ ✠

¿"Lanik-eza ta abar" dagozala esango dogula...? Esan biar; eta aberatsen jolasgarirako bakarik irazan ixan diran joko-etxiak olango irabaztiak ixaten dabezela jakiñezkero. bariz, izpide geyagogaz esan be.

Biaritz'ko "Casino"-ixeneko joko-etxe orek lau ilabetian irabazi ixan dauzan 1.200.000 franco edo diralako oreik gora-bera, langile erukarijen lanik-eza ta gixarterik geyenen gosia ta zoritxara, lengo lekuban dagoz, ba.

Idazlantxu au idazteko gaya emon dauskun izparingijak, Biaritz'ko joko-etxera juaten diranen artian, onixek gixartekо gosia ta zoritxara beriala uxatuko deuskubezan gixaki altsu ta ospatsubok ixentetan dauskuz: Wesmister'ko dukia, Jean Patou, Campbell-Blak. Gillet osatzalia, Tamames'ko dukia, Forest'ko baronak, Ivanrey'ko markesa, Lady Ursula Sankey, Paris'ko markesa, Calderon-etxeko markesa, Marone'tar Alberta italiatar aberats okiruba, Potochi kondia, Vista Florida'ko markesa ta bestatzuk.

Gustijak, be, guk izparingi oren bidez baño ezagututen eztoguzanak diran-aren, atietara ogi-eske juakjuezan lan-bako ta ogi-bako gixagaxo erukarijei eskupeko ona emoteko baño, atadiko ate - ertzaz musturetako galanta emoteko obiak ixango diralakuenen antza artuten deutsague.

Francetar izparingijak, baña, markes, duke, baron eta enparauko abar askogaz ixentetan dauskuzan aberats okiru oreik, Biaritz'ko joko-etxiari alango ta olango irabazijak emoten dautsiezala-ta, txalotu-egiten dauz.

Guk ezin txalotu ixango doguz, ba. Guk, gixarteko gauzai kistar-bidez bakarik begiratuten dakigunok, konde, duke ta orein jolas-bideko txindi eralgite ori, gaiztetsi egiten dogu. Gixartian gosia ba-dago, oben-bidietan esku-zabalez diruba eralgiten daben aberats okiubak dira, ba, erudun. ¿Biaritz'ko joko-etxiak dirubak-diru irabazten dabezala...? ¿Eta zer? ¿Zer arurako ete-dautsie biariztarai, "Casino"-ixeneko joko-etxeko irabazijakarik, bitartian, eurak, aborako ogi-zati bat eztaukela bixi ba-dira?

"Oker-zuzentza"

Ixenpuru ber-beronegaz asten zan ingoski onen arteakarijak atzo idatzi eban argi-bidezko idazlana.

"Okef-zuzentza" au, igazi dan larunbatan "Euzkeldun Batzokija" zala-ta idatzi nebanak sortu dauna da.

Idazki aretako nire eretxija, iluntxu agertu ixan nebala diño.

Egija, iluntxu eguan. Beste era batera agertu ixan ba-neu, argijago egongo zan. Esaterako. Bilbao'ko Euzko-Gastedija'ren ixena osuan artu barik, Gastedi ospatsu oren zatitxu bat bakarik ixentau ixan ba'neu, argijago egongo zan. Gastedija'n aketa artzeko-ta... dagon aretua. Auxe da, ba, irakurle. ataturiko larunbatako idazlantxuban, gaztelerijetako "Casino"-ixeneko akeit-aretuakaz bardindu gura ixan nebana, eta ez Bilbao'ko Euzko-Gastedi osua. Ona, emen, nire larunbatako idazlantxubaren iluna argituta.

Ingoski onen burubak, atzo idatzi euskuzan lehuetan, Euzko-Gastedija'ren goragari diran lero txalogarijak idatzi dauz. Edero egiña, egijari bere lekuba emoteko, olantxe idatzi biar da-ta.

Nik, be, Bilbao'ko [illegible]ko-Gastedija'ren goragari diran lero ore[illegible]zekuak, bein baño sarijago idatzi ixan [illegible]daz. Eta diñotan au egija dan edo ez jakiteko, nire idazlan txiruetan azteraldi batzuk egitia lakorik, ezebez.

Baña gure artian saritxu jazo oi-dana, auxe ixaten da: urte osoko eguraldi eguzkitsuben giro atsegingarija, egun bateko laño ilunkiak aiztuazoten dauskula. Urte osoko suba, egun bateko ixotzak amatau.

Olakoxiak gara gu: txaluak-txalo joten dauskubezenian, "eskerik asko" bez. Eta, ordez, lehuen bat erdi okef edo erdi ilun agertuten doguneko, makiloska ta abaroska asi.

Baña ez. Gastedi'kuak asaratu ba-yataz be, ni eurekin enaz asaratuko. Nik agertzen dodazan eretxijak, anai-matasunak erazoazoten daustazanak dira, ba. Eta matasuna dabilan lekuban eztago asarik.

Bilbao'ko Euzko - Gastedija'tzaz esan nebana esan neban, Gernika, Durango. Zornotza ta abaretzaz, be. Baña ez Batzokije'tzaz, Batzoki orerako akeit-aretuetan susmetan dan gaztelar-usañetzaz baño. ¿Enebala esan biar...? Azketsi.

URIBITARTETAR IBON.

MAYORGA'TAR JON ZIÑOPA ZORUNDUNA

GARILLA 15'N.

Mayorga'tar Jon, Donibane Garatzi, Bayona'ko gorterkian 1531'n urtean jayo zan. Ondiño gaste zala, ikasketak egitea erosoago izango ebala-ta Aragon'era aldatu zan, eta orexegaitik aragontara deitzen eutsoen. Alai atan, margolari-ertirako zaletasun andia zabal ebilen, eta gure gasteak be, gogo andiz ertilan oneri ekin eutson eta baita aurerapen andiak egin be.

Bere erti-lanak Zaragoza'n eta España'ko beste uri batzuetan ospe andia izan eben batez bere, bere eriotz aintzagariaren ostean. Margolaritzan gora ta gora yoyala, txalo ugariak irabazten zituan bitartean, zeruko argiz igari eben lureko gauza gustiak uskeriaren uskeri baño ez zirala, eta berak margoztuten zituan deunen bururestuna irabazi gurarik, lureko aintza gustiak bertan bera itxi ta Jesu'ren Lagundian sartu zan.

Ogei ta amabost urte zituan Zaragoza'ko josulaunen etxean sartu zanean. Lekaide-gai, urte bi garen urtean egoala ixiltasun eta otoiketan beste gustien gañetik galentzen zala, toki uriñetara joateko aukerea eldu yakonean.

Azebedo Iñaki aba, Brasil toki zabaletan ziñestea zabaltzeko ainbeste lan egin ebanak Borja'tar Pantzezka Deunak angо ikertzale aututa, bertako bearizanak ikusi ondoren, bertan josulaun-gai etxe bat eta Ikastetxe bat egitea erabagi eban. Brasil'en kistar ziñestea zabaltzeko, amaibako toki zabalez gañera, etsai bigaz buruka egin bear eban. Alde batetik, ziñesgekeri ilunpean bizi ziranak egiaren argitara biurtzea, ta bestetik, Parantze'ko ta Genoba'ko luterotar eta kalbindarak biotzean gofotoa eben zabaltzeleak Brasil'eraño bialtzen zituezan, eta onei be arpegi emon bear yaken. Oretarako, bariro itxasoak igaro ta Portugal eta España'ko josulaun ikastetxeak ikertu zituan, gaste ta gogozaletasun gartsuaka agertzen ebanak aukeratuaz. Azebedo abak egindako itzaldiak argiro adirazten eben, Brasil'en lan egin bear ebanak atsekabe asko igaroez gañera, ziñopa izatea be itxaron bear ebala. Ara joateko gertau ziran gaste adoretsuen artean egoan Mayorga'tar Jon be. Onetzaz ara zer iñotson, Azebedo abak, orduan Josu'ren Lagundiaren buru zan Borja'tar Pantzezka Deunari: "Jon anaya, margolaritzan daukon trebetasunaren, Mixiño areitako basatiak beraganatu eta irakatsiaz, gustiz on andia egingo dau". Eta alantxe Valle del Rosal'eko ikastxean eskintzak egin ondoren, bere biotzeko poztasunik andienagaz, mixiñolari talde bikañagaz batu zan.

Gustiz, Azebedo abak irurogeta bederatzi batu zituan lan bikain artarako, bi eta iru jaunari edo mesadunak izan ezik, gustiak ziran pilosopi edo teoloji ikasleak. Brasil'go jaurlari Vasconcellos'ek zuzendutako itxasontzi batzuk Lisboa'tik urteteko ziran eta, antxe joatea erabagi eben. Itxasontziak saspi ziran, eta bat "Santiago" eritxonean, Azebedo aba ta ogeta emeretzi, sartu ziran enparauk beste Itxasontzietan.

Itxasontziok Lisboa'tik 1570'ko bagila-5'n urten eben, Madera'ko ugartera saspi egun baru eltzen diralarik. Azebedo'tar Iñaki abak, goi argiz ezagutu eban ontzi artan yoyazan gustiak ziñopa izango zirala, eta zorion ori izango ebalako bere lagunakaz batean Jon be poztasun andiz bete zan. Eta zorion ori uste eben baño lenago eldu yaken. "Santiago" itxasontziak enparauakandik aldendu beara izan eban Canarias'ko ugarteetan Palmas'ko urian zerbait zama itxi beara eukan eta.

Onetan uste barik, bost ontzi itxaslapurenak agertu yakezan begien aurean Zuzentzen zituana, Jakobo Sourie Dieppe'ko itxas-lapura zan. Gizon ankera eta kalbinotar amoratua zanez, katolikotaren etsai bildurgarria. Bere asmo galgarria, Indiatara yoyazan mixiñolarieri, aurera jaitzen ez lagatzea zan. Mixiñolariok yoyazan itxasontzia arapau gura eban, ete bere gudariak lau bider geyago ziran eta azkenean be, burua makurtu bearean aurkitu ziran. Azebedo abak, euren ordua eldu zala igari eban, eta Kisto'ren aldez odola emoteko lagunak adoretuten zituan bitartean, otso amoratuen antzera, bere gain gudari kalbindarak jausi, ta burua mostu ta lantzaz zulotuta, bere bizia Jauna'ren aldez emon eban. Enparau jolasnetan triskantza izugarria egin eben. Soñekoak kendu, irañez bete eta ezpataz zatituta itxasora jaurti zituezan. Itxasontzia odol ereka biurtu zan. Bitartean, Jon zorundunak Kurutza eskuetan ebala bere anayak adoretuten ekin eutson, deadarka esanaz: "Gora gure Jaun Josu-Kisto! ¡Gora Katolikotar Ziñesmena!". Onetan ziñausle talöea bere gain jausi zan, eta zauriz josita itxasora jaurti eben. Onantxe emon eban bere bizia, zorundun adoretsu onek. Garila-15'gna. zan. Egun atan bertan, Terese Deunak Avila'n egoala, goi-argiz ikusi zituan, berogei ziñopa euren burestunakaz donokira igoten. Eta iragari eban lez jakin zan zer gertatu zan. Mayorga'tar Jon eta bere 39 lagun ziñopak XIV'n Benedita'k 1742'ko irala-21'n zorundunen izendegian ipiñi zituan.

MITARGA.

Euzkaltzaindiaren Laguntzalleak

Geure izkuntza oni baruti zabalaguak emon gura dautsezan Euskeltzaindiaren Laguntzaleak bialdu dauskube ilbeltzari yagokon "Deia". Gaste orein adoretasuna ta zintzotasuna euki gura geunkez euki, euzkerarik entzuten eztan tokijetan, be, oidalako lana egin daroiezalako. Euzkadi'ko euzkeldun gustijak lagundu biar leuskijoe. Ona emen azkenengo "Deia„'n datorren idaz-lantxu bat:

✠ ✠ ✠

Aurak adimenez baño zentzunez geiago ari ta bizi dirala jakiña da.

Zentzu-bidez sartua ta ikasia iruditan gelditzen da gogoan. Irudi-gaiak ta irudi-itzak, ez adigaiak, ikasbide ta adibide ibiltzen dituzte.

Euskera erakustean ori cartu bear degu. Euskera sartzeko zentzutara jo: begi, belari-bidez batez ere.

Gauzak ta adigaiak iruditan, begi-irudik, belari-irudik dirala, ikur-irudiak dirala, bide ortatik ibiliarazi aurean gogoa ta adimena.

Irakurgai asko mar-irudiz josiak, umeak ibiltzen dituzten irudi-jantzikin ta irudi-itzakin ori dezu biderik onenetako.

Gramatika oso gutxi: Decoene-Stacleus'ek diotenez, bakarik, "itza, esakizuna", izen bakar, izen orokor, verbo edo aditza, aditzaren ariketak, izen-sustrai ta sustrai oren jantziak, nor, ta oren egoki ta betegarriak (itza, proposizioa, singular, plural, verbo, conjugazioa, sustrai ta radical, tiempo, sujeto, atributo, ta complementos). Ori ere ez da erakutsi bear gramatika-giza; irakurgaiak erabiliz ikasiko da.

Jolasen itzetan ta esakizunetan, irakurgaietan mailaka ta irudi bearezkoenak jartzen badira bide ortatik auferapen aundiak egin litezke. Dei onek ortan zerbait egiten du. Deia edatu bear degu: ta lagun berak ekarí bear dizkiogu "Deia"-ri.

Eusko-ikastola guzitan euskel jolasak, euskel irakurgaiak, euskel irudi edo kuadroak bear dira.

Euskel jolasak ta irakurgaiak egiteko asmotan ta ari omen dira. Euskel-kuadro oiek egitea eraxago litzake: Delmas edo orelako bat eusko-usaitu ta euskeraratu.

Ori egin bear da. ¡Euskel-irakasle jator oietako batek zein ederki egin dezaken ¡Jari

ALTZO'KO OLANO'TAR M.

Euzkotar Umien Aldez

UMEAI AZIERA ONA EMATEKO AGINPIDEA, NOLA IRITXI?

I

"Zaitu zaitez, aren, Jaungoikoagaitik, Ene! nik ez nai estul ori entzun beriz".—Jules Laforgue. (Ilargiaren bakar-eresia.)

Aginpide gabe, (autoridade gabe) umerik ezin zuzendu gentzakeala esan degu lengo idazkietan.

Ikusi dezagun orain aginpidea nola irixten dan eta nola galtzen dan umien aurean.

Txiki-txikitatik siñistu bear du umeak, bein aitak edo amak ezetz esan eskero alperikako lana dala beriz eskatzea, naiz negar egitea.

Umeak zer eskatzen duan ondo oldoztu bear degu, bayeztu edo ukatu baño len.

Lenengotik ezetz esan eta gero umeak beriro eskatu duanean kontuan erori ba'gera ez dagoala kalterik umientzat len ukatutako gauza emanaz eta augaitik bayetz esaten ba'diogu, aginpidea galtzen degu umien aurean.

Umeak uste izango du, bere jardunari zor diola berak eskatu duana iriztia, eta uengo batean ere edozer gauza eskatzen duanean, nai lenengoan, nai bigarenean iritxi ez, ez da ixilduko beria lortu artean.

Onelako umeak bai dirala gogaikarik! Onelako umeak bai dirala aspergarik benetan, eta euren gurasoen eruz!

Ezetz esan eskero ezetz dala dakien umeak ez du beriz gauza bera eskatuko, alperikako lana dala bai daki ta, eta alperik nekatzeko gogorik ez du iñork izaten noski, ez eta umeak ere.

Aginpide gabe asitako ume batek auxe dio bere amari neguaren biotzeko egun batean aratzaldeko lau ta erdietan:

—Ama, Nekanetxo'nera juango al naiz jolasean egitera?

Eta amak erantzuten dio: —Ez beintzat, oraindik sei egun ez gornia igaro dezula ta, ez gero neri orelako gauzarik esan ere egin. Egualdi epela ere bai dagota, alajaña!

Umeak: —Bai ama otzik ez dago ta, laga egidazu Nekane'nera juaten.

Amak: —Otzik ez dagoala? Ipar aizeak eta bisutzak basterik gustiak eraman biar ditu ta? Ez beroa. Beste danok emen gaude otzak tragatu bearean da, otzik ez! Ezetz esan dizut.

Umeak, negarari ekiñaz: —Amatxo, laga egidazu, aspertuta nago ta beti etxe baruan.

Amak, bere senetik erteten asiaz: —Ez gero neri zio gabeko negarik egin, bestela benetan eragingo dizut negar.

Umeak bai daki arazoyagaitik ez dala etxetik erten gabe geldituko, naikoa bider ez eskatzeagaitik baizik, eta len baño negar eta malko aundiago ta ugariagoakin —amatxo—dio, laga egidazu ba etxetik Nekane'neraño juaten; zeuk esan zidazun, sendatzen nintzanean juango nintzala ta, orain sendatu naizanean utzi nai ez. Dana gezurra esaten dezu zuk izan ere ta.

Amak, zearo gogabetetuta: —Ene, au ume lapa. Ez dago au beretik aterako duanik, Onek, autik ateratzen duan itzak balio bearko du (Amoruz). Juan zakit, begien auretik, arin gero juan ere, nai ba'dezu Nekane'nera, eta nai ba'dezu Izaraitz'eko puntara, eta ez gero geyago etxera jo, etzera emen sartuko ta. Nekane'nean bizi emendik aurera!

Eta zearo bere senetik ertenda, bultzaka berak ateratzen du umea atetik kanpora, ta atea itxi ere bai "Nai dezun gori gaizto egin ezazu" esanda. "Ene, ume abek erasaten dituzten itzak" geituaz.

Umea beriz, negararen astarnarik ere gabe, pozik, berak uste baño ariñago beria iritzi duanean, eskilera malak biñaka-biñaka igaroaz an dijoa bere laguntxoen etxera, geyago bere etxean sartzeko pelik izango ez duan bilduk aundi gabe.

Umeekin onela dabiltzan gurasoak ez dute aginpiderik, ez daukate autoridaderik, bein bayetz eta bein ezetz, bein ukatu eta bein laketu aginpideak duan benetasuna galtzen dutelako.

ARITOKIETA.

Dr. R. Aranburu
AZALEKO SENDAGILEA
Egunero 11-1, 4-7.
FUEROS, 5, tercero. — DONOSTIA

Euskeltzaleen Orratza
Lko. BAT
Saltzalientzat
Saneurri bereziak
ARIETA ITXITALEA
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - Donostia

Errijetatik

OTXANDIANO

Aspaldi onetan efi onetako izparik eztala etofi-ta zeozer irakurfi edo bafi ixan dagijen neure erikideok emeko bafi batzuk esatia gogoratu yat. Ba-dakixube lengo egunian zelako izpara ekafi eban "Anboto„'k idatzi-ta; irakufi nebanian, guzura ete zan egon nintzan baña efi onetan ikusi dodazanian berak esaten ebazan "investigadoriak" ikaratu-ta geratu naz. Asko dira oindiño efi onetan onetzaz ezertxo be eztakijenak eta ondo ixango da danok jakiun ixatea. Bertan bixi garanok, ikusi dogu zelako udala ixan dan orain dagon udalaren auretik egon dana, zelan efijaren alde berak lan egin daben, baña batzuk esan dabe... lengo udalak txindi "diru" asko uldu "gastau" daula eta au zelan ete dan ezin yake buruban sartu eta, ba-da ezpada... ondo ixango litzakela "investigadoriak" efi'ra ekartia, ta ekafi be egin dabez.

¿Ezer aufkituko ete dabe? Bai gauza asko aufkituko dabez baña danak ixango dira efijaren onerakuak eta efijan lan barik dagozanai lana emoteko gastau dranak. Nik eneban esan biaf ezertxo arik eta eurak dana argi eta garbi zer dan edo zer eztan esan arte, baña aufetik jentia jakiun ipintia be ona ixango dala ta, emen natof ba neure eretxitxu au be esatera.

Orain aginduten dagozan gixonak gixon artezak dira ixan be eta [illegible] gauzak afgi ipiñeko mofoyak ekartia. ¿Zerba? Abeftzaliak biaf-ba-da "efevoluziñorako" dirua emongo eben eta geu gura gozubez zepuan atrapau? Ez orixe; guk ba-da ezpa-da gauzak garbi gura doguz ze gu garbijak gara ixanbe ta. Bestela begiratu "Dictadura" garbi itxi genduzan guk edo gure alderdikoak euren gauzak ¿Gogoratzen zarie guk egiten genduzan juan etofijakin? Madrile'ra juaten ba-giñan [illegible] abeftzaliek bafiz efijen kontura. ¿Zer egin dautse abeftzaliak guk itxi geutsen diru piluari?

Olantxe berba egiten dabe eun urtian Euzkadi gustijan aginduten [illegible] alderdikuak. Abeftzaliak euren alderdikuari bakafik lanak emoten dautsez eta guk bafiz begiratu barik alderdi gustikoari, ¿ezta alan ala? "Dictadura" aldijan atara ebezan diruak ikastola bafijak egiteko ei-ziran baña ikastola bafirik eztogu ikusi iñun. ¡A... bai! Bekoletan gixona, Bekoletan! Bekoletako ikastola bafija eurari ezkefak bestela etzan egingo. Bai-ta beste bat-be gixona aiztu egiten yataz. Nun dagon? Telejan gixona! Au be ezkefak eurai bestela etzan egingo. Zer egin dabe ba abeftzaliak? Ezebez? Gure gañe edan eta ezpanak garbiru eurak egiten ebena. Bai ba guk au be ikasi itzalak gara gu gero ixanbe, gauza onak gustijak eurai ikasten dautsoguz. Bidiak, Bekoletako bidiak eta Olaetako bidiak be ezkefak Diputaziñoari bestela abeftzaliak gora bera egon biafko eben egin barik. Eta urak? Urak? Urak etofiko dira eurija egiten dabenian euren bidietatik ardaua dagon aftian zetarako biaf doguz ba urak? Au da au "administraziñoa"! Ez abeftzaliak lez beti dirua gastau eta efiko kaxia diru barik itxi onetarako bai eztagola eskubiderik! Zelako ederto ibiliko ete giñan gu diru asko itxi baleuskube! Baña zetarako biaf dogu guk dirua geu ain zintzuak ixan eskero?

Abeftzaliak; ba-dakixube ufengorako zer egin biaf dan efija ondo "administretako". Onexek erakutsiko dausku guri zer egin biaf dan geuk agindu[illegible]nian, orain arte lez, danari amen egiten ibili biafekuan. Aupa mutilak ez bildufik euki geure lenauko udalak eztau gauza txafik egin-eta. Eta onetariko gauzak ikusi-ta len baño geure abeftzaletasuna gogofago eta auteskundiak datozanian gogof lan egin geure eskubetara efiko aginpidia etofi dafen ez geuk emen onek uste daben lez "txupetako" ezpabere efijari onura yakozan gauzak egiteko baño.

Orain ixil-ixilik, eurok "invsetigaziñuan" zer urten daun esan afte.

BEKOLETA.

ZAMUDIO

ERIJOTZA.— "Iberbekua" besetxeko Uriarte'tar Kandida eta Ormaetxe'tar Bernarte senar-emasteak umetxu bat ixan dabe. Baña Goiko Jaunak ludijan baño donokian obeto egongo dalako-edo, eroan dau bere albora.

Lagun gayakez atsekabian guraso abeftzaliai.

JAUPA BAT.—Datofen igandian goxeko saspiterdijetan esango da jaupa abestu bat eta egingo dira beste otoitza batzubek be. Zuzunaga'tar Agate'ren gogo-aldez. (G. B.).

Eleizkixun oreik egingo dira efi onetako Emakume Abeftzale-Batza'ren agindu.

IXIDOR DEUNA.—Efi onetako lugiñak oso andikiro ospatu dabe euren zaindarija dan Ixidor Deuna'ren eguna.

Goxeko amafetan euki eben jaupa bat Martin Deuna'ren txadonan txonitz eta gusti. Txonizlarijak gustiz edefto azaldu eban deunaren bixitza eta bai bere erijotza-be.

Jaupa ostian dantzatu ziran ezpatadantzari talde bat eta gorularijak, oso edefto.

Egubefdiko orduubatetan euki eben oturuntza. ¡An bai ibili zirala pozik basefigoraldu, batez-be, abefkidien artian. ¿Noiz itxartuko ete-gara lo-zofo oretatik? Nire ustez iñoiz bez, gure euzkerea galtziaz, euzkotafok galtzen garalako.

EUZKEL-IXENA.—"Ugutza" Abasolo'tar Pantzezka eta Etxebafia'tar Jone'ren semetxuari, "Sabin" euzkel-ixena imiñi dautse. Afa-amabitxi umiaren osaba Abasolo neba-afebak ixan dira. Zorijonak.

EMAKUME BAT.

tafak! Aspilera baño begiratu be ezeben egiten batzubek. Bazkal ostian gefikua be apufturu biafian egozan geyenak.

Baskal ofduban lugiñari alaitasun apur bat emoteko, txistularijak jo ebezan arin-arin batzubek gustiz edefto jo-be. Arratsaldian efomerija egon zan, eta bai lagiñak oso alai jolastu be.

Geure lugiñak ondo be ondo dakije an lan Ixidor Deuna'ren eguna ospatu.

LORAK.—Beste uftiatan legez aufen be egiten dira ofilako lorak. Egunoro eduten da kistaf asko batez-be jai-egunetan, Miren'en ila goralöu eta berari esker-ak eskatuten. ¡Miren amaren laguntasun lortuko al dogu gustijok!

EUZKO-BATZOKIJA.— Saspi illabete inguruan geure Euzko-Batzokija itxi euki dogu. Zergatik zetan esanik ezdegu ba gustijok dakigu.

Baña euren efakuntza ori esagututa-ezabaldu dauskube.

Atiak zabal-zabal aufkituko ditube beftora efduten diran gustijok, euren jotzetan euzko-maiasunik badakarole.

TXIMISTA BAT.

MAÑARIA

ELIZKIXUNAK.—Igandez, emeko ixan, Andera Miren deun-deunaren atzarako Jaunartze asko ta otoitz egin ziran.

AGURTU.—Igarorilko astian agendun, "Iturijeta" afobijaren dan Garamendi'tar Kandida abefkide tzoa.

GELDI EGON BIAR...—Egunoko eurijok bere lanari edefto daragoyo; dala-ta, lugin gixajuak zeregin asko afen, ezetarako arorik ezagatik geldi biaf. ¡Tamala! Onezkero baña, guregin arte ekin dagijela ba, euri ofek; lenagoko mañaritafak egin lez afikarik eztautzogu geuk egin. Ofen kokoluak be ezkara... Ona izpaf oneri yagokan antziñako befto

"Mañarin eurijari afika
Ixurtza'n ixerak zabaldu,
Durango'n bafiz tronpa-soñuan
Sapo gustijak dantzatu."

ELGOIBAR'KO "MIRENTXU".— Zure alabatxuaren lenengo Jaunartzemutakija, lengo igandez jaso neban. Izuk bialduriko estanpatxu polita emutsez idatzita dagolako, pozago eskneban...! Onetan be, "Mirentxu" ofek, zeure abeftzaletasuna edefto dozu... Zintzoa zara. Zijo onegatik ak eta zorijonak "Mirentxu", ta alabatxu samurari, emen eta an zorbetia ixan dafen, Teresetxu deuna Josu'ren mafalia ixatia opa dautzat.

MAÑARIA.

Idazti barrijak

"ENSAYOS EUSKARIANOS"

Garate jaunaren idazti bafi au ira-dogunian, geure baitan esan dogu: gauza ikasi yuaguzak! ¿Liburu ori gaitik etxako emon aizerik? Euzkagertzen diran egunkariak berein ekaften dauskuez. "Palomares del txafi batek lau atz jan dautsoz ume ¿Eta geuri zer? Ufengo egunez, beste bafi auxe jakin-arazoten "Urlia'ren emaztiak lau seme erditu

Olakoxe bafiakaz bete daroez gustiak. Liburu edef bat argitara iragafi dagien, tokirik ez, gero! "euskarianos" liburuak ez ete-dauka antzirik? ¡Suge batek dantzan-egin jakin-erazotiak beste bai-edo! Garate'ri etxakona aztu a Schiller'esana: "Hasta los mismos dioses san en la lucha contra la estupidez".

Osagile azkara ez-eze idazle dogu. Gomutan dodaz: "El Padre en la Biología". Geroxe: "El viaje varra de Chaho; G. de Humboldt, dio de sus trabajos sobre Vasconia; rrecciones y Adiciones al Mithridates G. de Humboldt". Orain esku-artean abilgun oni buruz zerbait esan di Goralben-bila ez datof Garate jaun ure idazlan au, be, ezta labankeri euzkoai jakin-erazteko, bai ostera, onuratsu bat erosi biaf leukiela.

Amaf atal daukaz. Gai bati ez deutsi. Lenengo idaz-sailan Alemani'ra eban ibiltaldiari giafa ateraten dau "Dos años en Alemania". Euzkotafak tuten gara afotzak geuri buruz idatzi bezanak jakiten doguzanian. Eta dau ai askotxu zof dautsegu. Humboldterik izan ezpa zan bere, doistafak begiko biurtzeko lain-ixango zan. euzko-seme batek doistafetzat zer jakiiea, gozo-gozo yaku. Gai ofen berein oaf eta jakingai atzaldutenkuz idazle azkafak. Doistafen jaizakera, judetafak, emakumeak-eta zelakuak diran.

Atzefi-zear joan doanian, Garate eztau galtzen bere begi zofotza, obati yagokon begia. Baña atalkirik ena, geure gozorako, "En el carlismo y del romanticismo" dena. Karlatafen bufukalöi areitan zan ba-dakigu. Ofori buruz idatzi dau berein dira. Baña guda-aldi areik sortu ziran edo zelako ideen indafen dotu ziran jakin nai geunkenoi Gapoza-egiten dausku. Okef bat dauka le onek: pentsamentu bakanak eta nak idazten dauz, baña ondo azalbageratzen dira. Eztauz biribilduten argi baten bidez. Romantikutsunak eragoioen karlatafai adirazi nai ozedefki buztertzen dauz igazi dan ideak eta euzkotafen gudaketak.

(Dafetz)